



ENDIKA OREGUI



**Larriki gaixo dauden presoekin elkartasuna-** Ibon Fernandez Iradi euskal presoari eta gainerako larriki gaixo dauden presoekin elkartasuna adierazteko asmoz, ekitaldia antolatu zuen Lasarte-Oriako Sarek, ostiralean, Okendo plazan. Txalaparta doinuek eman zioten hasiera ekitaldiari eta irakurle txokoko lagunek hartu zuten hitza jarraian. Hauek, Ibon Fernandez herriko presoaren testu bat irakurri zieten bertan bildutakoei. Idatziak, aita izango zela jakin zuen uneko bizipenak azaleratu zituen. Ane Labaka bertsolariak hartu zuen mikrofonoa segidan. Iboni egindako bertso sorta bat prestatu zuen herritarrek eta ekitaldian bildutakoekin batera abestu zituen. Euskal presoek kartzelatan bizi dituzten egoera zail eta mingarriak ekarri zituzten gogora bertso horiek. Horrekin batera, presoek senitartekoei presondegietara egin beharreko bidaietan, errepidean izan ohi dituzten zailtasun eta arriskuak ere agerian gelditu ziren. Ez ziren falta izan presoentzako maitasuna mezuak ere. Xumelaren txanda izan zen ondoren. Kantu taldeko lagunak ere bertan izan ziren eta 'Kalera kalera' eta 'Epo ita ita ye' abestiak kantatu eta dantzatuta girotu zuten ostiral iluntzeko ekitaldia.

## 2 AZOKA

### Baserriko garaiko produktuen azoka

IV. Baserriko Azoka izan zen larunbat goizean, Lasarte-Oriako Okendo plazan. Guztira, hamabi ekoizleren produktuak izan ziren plazan kokatutako postuetan. Beste zenbait produkturen artean, barazkiak, gozokiak, ogia, esnekiak, haziak eta olio naturalak ikusi, dastatu eta erosteko aukera izan zuten bezeroek. Eguraldia lagun, jende ugari bildu zen eguerdi aldera, azokan.

## 3 ELKARTASUNA

### Etorkinei eta errefuxiatuei babesa

Etorkin eta errefuxiatuen egoeraz hausnartzeko Topaketa astea egin zen herrian. Asteburuan ere izan ziren hainbat ekintza. Ostiralean, esaterako, 'Las lágrimas de África' dokumentala ikusi ahal izan zen Manuel Lekuona Kultur Etxean Larunbat gauean berriz, Arantzazuko Ama eliza azpiko lokalean egindako elkartasun afariak eman zioten amaiera Topaketa asteari.



## 4 KULTURA

### Gonbidatu bereziak akordeoi jaialdian

Zero Sette akordeoi orkestrak antolatutako XIII. Lasarte-Oriako Akordeoi Jaialdia izan zen iragan larunbatean, Manuek Lekuona Kultur Etxean. Aurtengoan, Euskal Herrian zein nazioartean ospetsuak diren akordeoilari gonbidatuak izan ziren protagonistak. Susana Cencillo eta Javi Perez bikotea, Julien Gonzales akordeoilari frantsesa eta Clak'Tek taldea.

Azaroaren 15etik aurrera

OARSOALDEA · BURUNTZALDEA · DONOSTIALDEA

**ANTXETA 2**

IRRATIA · 105.8FM

Euskal Herrikoa eta euskaraz

Ttakun · 1991/2016

**25** urte

**AZAROAK 16**  
Ttakun Kultur Elkartearen 25. urteurrena: 19:30etan Ttakunenaren irekiera ofiziala, txalapartaz eta Bea Egizabalen hitzez girotua. Luntxa.

**AZAROAK 19**  
20:00etan "Bi Zaldi" taldearen kontzertua Jalgin

**AZAROAREN 15etik 21ra**  
Ttakun Kultur Elkartearen 25. urteurrena: 19:30etan Ttakunenaren irekiera ofiziala, txalapartaz eta Bea Egizabalen hitzez girotua. Luntxa.

## AZOKA



Askotariko produktuak erosteko aukera izan zen azokan. Irudian, Telleri baserriko herritarrek barazkiak saltzen.



Haurrentzako jolas ezberdinak izan ziren Udaletxeko arkupeetan.

## Garaiko produktuak Okendon

### IV. Baserriko Azoka izan zen larunbatean, herrian

Baserrietako produktuen azoka izan zen larunbatean, laugarrengoz, Okendo plazan. Herritarrek, askotariko produktuak erosteko aukera ederra izan zuten. Horien guztien artean, barazkiak, gozokiak eta ogia izan ziren salgai, besteak beste.

**E**guraldi euritsua zegoen iragarria, baina ez zuen tantarik bota larunbat goizean, Lasarte-Orian. Goizeko hamarretan zabaldu zituen ateak aurtengo IV. Baserriko Azokak. Guztira, hamabi

ekoizleren produktuak ikusi, dastatu eta erosteko aukera izan zuten bezeroek. Horien artean, herriko ekoizleen bi postu izan ziren; Telleri baserriko barazkiak bata eta hazi ekologikoena bestea. Horiez

gain, ogia, esnekiak eta gozokiak erosteko aukera izan zen, beste zenbait produkturen artean.

Etxeko txikienek ere izan zuten azokaz gozatzeko aukerarik. Udaletxe azpiko arkupeetan jolas ezberdinetan aritu ziren gaztetxoak; bola-jokoan eta arrantzan gustura ibili ziren.

Udal Musika Eskolako tritilariak alaitu zuten goiza.

## Memoriaren egunean, biktima guztiak oroitzuz

Azaroaren 10a da Memoriaren eguna eta udal korporazioak honekin bat egin zuen PPK izan ezik.

Alkateak biktima guztiak dutela oroitzapenerako esku-bidea eta horrek inklusioa izan behar duela adierazi zuen. "Giza Eskubideak urratzeko modu guztiak arbuia-tzetik abiatuta, memoriak aitormena, erreparazioa eta ez erreparazioaren bermea sustatu behar duela terrorismoaren eta motibazio politikoko bortizkeriaren edozein erabileraren biktima guztien

kasuan. Eta horregatik guzti-guzti agertzen dugula geure konpromisoa eta borondatea ahalik eta kontsentsurik handienetik memoriaren politika bat sustatzeko, beren duintasunaren urraketa bidegabeki nozitu zuten eta oraindik nozitzen duten pertsona guzti-ekin enpatiaz eta elkartzasunez aritzea eskainiko duena".

Lore eskaintza egin zen Udaletxeko arkupeetan baina EHBilduko bi kideek loreak Askatasunaren parkean uztea erabaki zuten, "azken urteetan guneak lortu duen inklusi-



Aurten Udaletxeko arkupeetan egin zen ekitaldia eguraldi txarra medio.

bitatearen alde. Azken urteetan, gure ustetan biziki-


detzako normalizazioan gune horrek lortu duen aurrerapau-

so txiki baina garrantzitsuen alde gaude, alderdi guzti-ek urrats txiki baina garrantzitsuak emanez, gune eta eskultura horretan biktima guztiak gogoratuz".

Bestalde, Alex Saenz PPKo zinegotziak ohar bidez azaldu zuen ekitaldian parte hartu ez izanaren arrazioa. "Ez dugu ETA kondenatzen ez dutenekin ekitaldi batean parte hartu nahi, izan ere, adostutako testuan ere ez da ETA aipatzen. Ekitaldi hau kontzientzia batzuk garbitzeko besterik ez da izan".

### Diruz laguntzen duten erakundeak

#### Babeslea



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

Txintzarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

#### Laguntzailea



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



GFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua

#### Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria

**943 366 858/943 371 448**

G-20407557

#### Legezko gordailua:

SS513/93

ISSN: 1134-0053

#### Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

**Aleak zenbakiko:** 7.800

#### txintzarri

#### Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega.

**txintzarri@txintzarri.eus**

**Publizitatea:** Arantxi Zulaika  
**publizitatea@ttakun.eus**

#### Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odrizola, Maider Seguro, Gorka Alvarez, Jexu Artetxe, Edu Galardi

#### Informatikoa:

Xabier Amadoz

## ELKARTASUNA



Argazkian, Cadizen lan egiten duen 'Tierra de Todos' fundazioaren alde egindako afari solidarioaren une bat.

# Etorkinen egoeraz hausnartuz

## Asteburuko ekitaldiek itxi zuten herriko Topaketa astea

**Etorkinen eta errefuxiatuen egoera gogora ekartzeko Topaketa asteak burutu dira gure herrian. Asteburuko bi ekintzetan Afrikatik datozen etorkinak izan dira protagonistak. Bihar arte, 'Somos migrantes' erakusketa izango da ikusgai Antonio Mercero aretoan.**



Herritar ugari bildu zen 'Las lágrimas de África' dokumentala ikustera.

## TXINTXARRI

**O**stiralean herritar ugari bildu zen Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoan, 'Las lágrimas de África' dokumentala ikustera.

Maroko eta Melilla artean dagoen hesia zeharkatu nahi duten etorkinen nondik norakoak azaltzen ditu. Hasieran hesiaren ezaugarriak eta

muga zeharkatzeko dituzten arazoak azpimarratzen dira.

Etorkinak bizi diren kanpamentuak nolakoak diren, haien herrialdeetako egoera, zeintzuk diren haien ametsak... ere azalarazten ditu.

Harresia zeharkatzeko egiten dituzten hainbat saiakeretako irudiak ere erakusten dira.

Amaitzean, herritarrek solasalditxo bat egin zuten.

**Elkartasun afaria**

Larunbat gauean, Cadizen lan egiten duen 'Tierra de todos' fundazioaren aldeko elkartasun afaria egin zuten Zuma buruko Arantzazuko Ama eliza azpiko lokalean. Honen bitartez, Gipuzkoako Caritas elkarteak, Andatzazpi Pastoral Barrutiak eta Etorkinen pastoraltzak antolatutako Topaketa Asteari amaiera eman zioten.

## BIYAK BAT

## Lodosa eta Calahorrara bidaiak

Biyak Bat erretiratuen elkarteak Lodosa eta Calahorrara txangoa antolatu du azaroaren 24an.

Autobusa goizeko 8:00etan irtengo da. Peron piper konterba-empresa ezagutuko dute, bertan ongi etorri luntxa izango dute. Calahorrako Erromanizazioaren Museoa ere bisitatuiko dute. Azagra Hostal Venecian bapoz bazkaldu eta bazkal ostean, dantzaldia izango da.

Elkarteko bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte, bazkide ez direnek 40 euro.

Izena ematea gaur irekiko da. Inskripzioa elkarteko bulegoan egin behar da 10:30etik 12:30era.

## ERLIJIOA

## 'Sinestuna naiz...sinesgabea...' hitzaldia, asteazkenean

Andatzazpi Pastoral Barrutiak Lasarte-Oriako Udala eta Danok Kideren laguntzaz asteazkenean, 19:30etik aurrera, hitzaldia antolatu du. Ama Brigitarren kapilau Felix Garitanok 'Sinestuna naiz...sinesgabea...' izena duen mintzaldia eskainiko du.

Gaur egun munduan Islamismoak eta agnostizismoaren eta sinesten ez duten pertsonen gorakadak kristautasunean duen eraginak bultzatuta hausnarketa egingo du. Gure herriari buruz ere mintzatuko da. Zientzia eta erlijioaren arteko lotura ere izango du hitzaldia.

Antolatzaileek herritarrek gonbidatzen dituzte ekitaldi honetara.

## IPUIN-KONTALARIA

## Sormena lantzen

Kontu Kantoiko kideek erronka bat luzatu zieten lehenengo ostegunean haur liburutegian bildu ziren 6 eta 8 urte arteko haurrei, guztion artean ipuin bat sortzea. Ederki gozatu zuten gaztetxoek haien sormena lantzen.

Baina aurretik ohi bezala hainbat ipuin kontatu zizkieten gaztetxoei, hala nola, errege autoritario eta bere ametsen istorioa.

Ostegun honetan, berriz, 4 eta 5 urtekoek ipuin saio berriaz gozatuiko dute. Pello Añorgak abentura berriak bizi-raziko dizkie, hainbat liburuetan barrena.



# Establezimenduak ere, 'Hozkailu solidarioa' ekimenarekin bat

**H**ozkailu Solidarioa' programarekin bat egin duten establezimenduek pegatina bereizgarria izango dute. Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 'Hozkailu Solidarioa' programaren aldeko beste pauso bat eman du, herritarrek janariaren balioaz eta elikagaiak alferrik ez gastatzeko beharrez kontzientziatzeko helburuarekin. "Premia gehien dutenen pertsonenganako elkartasunaren aldeko apustua ere bada," azpimarratu dute Batzordeko kideek.

Inguruko ostalaritza-zentroei ekimenarekin kolaboratzeko eskatu eta formazio-hitzaldi bat eskaini ondoren, "Hozkailu Solidarioa" programako pegatina banatzen hasi da Udala, eta ekimen solidario honetan

lagundu nahi duten establezimenduen atean ikusiko da hemendik aurrera.

Programa hau herritarrei zuzentzen zaie bereziki, baina orain establezimenduek ere parte hartu ahaliko dute. Hozkailuan janari-soberakinak sartu ahal dira, hartara janari horietaz baliatu daitezke behar dituzten pertsonak.

**Baldintzak**

Gizarte Zerbitzuetako kideek gogorarazi nahi dute, hozkailu horretan kontsumituko ez den edozein janari utzi daitekeela, ontziratua edo egun horretan bertan prestatua.

Beste baldintza batzuk ere azpimarratzen dituzte, hala nola, "ezin da hotzaren katea ordu-erdi baino gehiago eten,

horrek produktuaren kalitatea bermatzeko baitu. Ezin da arraztarik edo haragi gordinik utzi. Jakiak ontzi gardenetan sartu behar dira, zein egunetan prestatu den adieraziz".

Kontsumitzeko moduan ez dauden janariaren mantentzea, garbitzea eta erretiratzeko astean behin egingo da.

**Ekimena**

Ekoizten diren elikagaien erdiak gutxi gorabehera ez dira inoiz komertzializatzen, itxuragatik edo kontsumoko datagatik, eta horregatik denda, jatetxe, taberna, frutategi eta supermerkatu askok zakarretara botatzen dituzte.

Janari zarrastelkeria hori ekidin daiteke 'Hozkailu Solidarioa' proiektuari esker.



Pegatina hau jarriko dute establezimenduek haien atean.

L-O UDALA

Hozkailua Manuel Lekuona Kultur etxeko arkupean dago. Era honetara, eguneko edozein egunetan dago eskuragarri, herritarrek janari-soberakinak bertan utzi edo bertan gordeta dauden

jakiaz baliatzeko. "Enpresa batentzat hondakina dena familia batentzat produktu solidario bat izan daiteke, aprobetxatzeko modukoa eta autogestionatua".

Informazio gehiago [www.neverasolidaria.org](http://www.neverasolidaria.org) webgunean.



Susana Cencillo eta Javier Perez bikoteak eskaini zuen lehen musika emanaldia.



Lau aldiz jaso du Julien Gonzales musikariak munduko akordeoilari onenaren saria.



Musika doinuen erritmora, bizi-bizi, mugitzen zituen Sagari Ur dantzariak hankak.



Jaialdiaren amaieran, elkarrekin jo zuten emanaldian parte hartu zuten musikariek eta dantzariak.

## Munduan zehar bidaiia bat XIII. Akordeoi Jaialdia egin zen larunbatean

**Zero Sette akordeoi orkestrak antolatuta, XIII. Akordeoi Jaialdia egin zuten asteburuan, kultur etxean. Aurtengoan, ospe handiko musikariak izan ziren protagonistak eta munduan barrena bidaiatzeko aukera ederra izan zuten bertaratutako ikus-entzuleek.**

### TXINTXARRI

**H**amahirugarrenez, Zero Sette Akordeoi Orkestrak eta udaleko Kultura Sailak antolatuta, XIII. Akordeoi Jaialdia egin zen larunbatean, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean. Aurtengoan, Euskal Herriko zein nazioarteko goi-mailako musikariak izan ziren protagonistak.

Akordeoilariekin batera, beste zenbait instrumentu ere aritu ziren, baita dantzari bat ere, eta askotariko estiloetako obrak eskaini zizkieten bertaratutakoek. Iluntzeko 19:00etan eman zioten hasiera musika emanaldiari eta Susana Cencillo akordeo jotzaileak eta Javier Perez tronpeta jotzaileak osatutako

bikotea izan zen agertokira igotzen lehena. 2015. urtean elkartu ziren musika-bikote gisa eta urte askotako esperientzia duten musikarien eskutik, euskal kantak, Bossa Novak eta Frantziako musika doinuak entzun ahal izan ziren larunbatean.

Hauen ostean, bigarren taldea igo zen oholtzara. Hiru musikariek eta Claqué dantzari batek osatutako 'Clak'Tet' taldearen txanda izan zen orduan. Roberto Gervasi Akordeoilariak, Yannis Constantis gitarra jotzaileak, Camille Wolfrom kontrabaxuak eta Sagari Ur dantzariak, musika eta dantza uztartu zituzten emanaldian zehar; musikariren erritmoak dantzatu zituzten Claqué dantzariak

emanaldi ikusgarrian. Swing, Jazz eta musika brasildarreko doinuak eskaini zituen lauko-teak.

Julien Gonzales musikari frantsesa izan zen arratsaldeko azken gonbidatua. Musika estilo ezberdinetako doinu ugari entzun ahal izan ziren jaialdian eskaini zuen kontzertuan. Horien artean, euskal doinua, Jazz piezak, tangoa, Frantziako Musette-a, musika klasikoa eta Errusiako musika piezak eskaini zizkien ikus-entzuleei.

Emanaldiak amaituta, Zero Sette Akordeoi Orkestraren eta udalaren izenean, oroigarri bana eman zieten gonbidatuei. Willy Berasaluze Debako artistak jaialdirako sortutako 'Akordeoiaren Olatua' garaikurra jaso zuten musikariek. Jaialdiarekin amaitzeko, gonbidatu guztiek elkarrekin azken obra bat eskaini zuten eta txalo zaparrada luze batekin agurtu zituzten ikusleak artista guztiak.




Musika emanaldi ikusgarria izan zen 'Clak'Tek' taldearena. Dantza eta musika uztartu zituzten taldekideek emanaldian.



# Irten armairutik!



## 4. Ahobizien lekuko aldaketa



**Elma Perez**  
Laugarren txandako  
Ahobizia

**Zer lortu nahi duzu esperientzia hau biziarekin?**

Euskaraz gehiago hitz egitea, baita euskaraz hitz egitera gehiagotan ausartzea ere.

Ni bizi izan naizen giroan erdara izan da nagusi. Gurasoek ez dakite euskara eta gure joera gaztelaniaz egitea da noski. Hori zerbait aldatu nahiko nuke.

Gainera, nire seme-alabekin ere euskaraz egin nahi dut eta beraiek ere euskaraz hitz egiteko joera hori izan dezaten sustatu.

Aste hauetan, Belarriprest bezala, ezezagun gutxi hurbildu zaizkit euskaraz egitera. Ohikoena txapa ikusi eta agur soil bat esatea izanda.

Hala ere, lagunekin saiatu naiz euskaraz gehiago egiten eta aste honetan ere horrela jarraituko dut.



### Belarriprest izan zaitezke

Ostiralean, musika izan zen nagusi 40 eguneko txanda aldaketan. Laugarren txandako Ahobiziek hartu zuten lekukoa, zortzikoteko kideen arteko txapa aldaketa izan zen Agus Mujikak Mikel Izquierdori eman zion eta animo hitzak eskaini zizkion. Ekitaldia girotzeko Xumela koruko kideen ahotsez gozatu izan ahal zuten bi txandetako kideek.

Hau guztiaz gain, antolatzaileek gogorarazten dute Belarriprest izen-ematea irekia dagoela erronka guztian zehar, "ikerketa hasi dela eta, Ahobizirik ezin da apuntatu, baina Belarriprestak behar ditugu ezarritako kopurura iristeko".

Izena ematea Ttakun kultur elkartearen edo Udaleko Euskara Batzordean egin daitezke eta momentuan Belarriprest txapa emango dizute.

**Informazioa:** Udaleko Euskara-Zerbitzua (943 37 61 84)

# ZABALETA BERRI BIZIGUNEA



**14 ETXEBIZITZA BERRI  
ZABALETA BERRIN**

2 LOGELA +12m<sup>2</sup>ko terraza  
**184.000 €tik + BEZ**

3 LOGELA +16m<sup>2</sup>ko terraza  
**199.000 €tik + BEZ**

- URBIL MERKATAL GUNEA
- ANBULATEGIA
- BIDE GORRIA
- HAURREN PARKEA
- KIROLDEGIA
- SANTA BARBARA

**TERRAZAK ETXEBIZITZA GUZTIETAN, 100m<sup>2</sup>raino  
BISTARIK ONENAK SANTA BARBARA ALDERA  
ERABATEKO PERTSONALIZAZIOA**

**943 36 89 42**  
**www.zabaletaberri.es**



Infografia hau(ek) aldatua izan daiteke proiektu teknikoetan

## TXIRRINDULARITZA.

## Bukatu bezala ekin dio

Iñigo Altuna herritarra da 23 urtez azpiko Gipuzkoako ziklo-kros txapelduna

**Mendiko Kriteriuma irabazita esan zion agur Buruntzazpiri Iñigo Altunak, iraila hasieran. Bi hilabete beranduago, Jira-Bira-ren elastikoa soinean, 23 urtez azpiko Gipuzkoako txapelduna izan da, Arrasaten. Aurreko denboraldia bukatu bezala ekin dio aurtengoari: podiumeko maila gorenetik.**

## IÑIGO GONZALEZ

Iñigo Altunak ederki ekin dio afizionatu mailako ibilbideari, azaroko lehen asteburuan Arrasaten jokaturako Gipuzkoako ziklo-kros txapelketan maila ederra erakutsita. Are, 23 urtez azpiko kategoriako Gipuzkoako txapelduna izan zen. Egindako denbora, 01:05.50. "Ezin dut gehiago eskatu", dio txirrindulariak.

"Ordubeteko lasterketa izan zen, eta gogorra egin

zitzaidan hasieran; aurreko urteetan berrogei minutu ingurukoak izaten ziren. Nabaritzen da aldaketa", aipatzen du txirrindulari gazteak. "Hasiera batean ez genuen asmorik txapelketan aritzeko, baina taldeak galdetu zidan ea parte hartzeko moduan ikusten nintzen, eta hala egin nuen; oso gustura nago lortutakoarekin", gehitzen du.

23 urtez azpiko kategoriakoak elitekoekin batera lehiatu ziren Arrasaten. Javier Ruiz de

Larrinaga (elite) izan zen bizkorrena, ibilbideko 27 kilometroak 1:00.41eko denboran eginez. Bost minutura helmugaratu zen Iñigo Altuna: "Larrinagak 37 urte ditu, egina dago jada, kategoria horretako beste txirrindulari asko bezala; 18 urteren bueltan gabiltzanok oraindik guztiz egin gabe gaude, eta hori nabaritzen da", nabarmentzen du Altunak.

## Talde berrian gustura

Afizionatuetara jauzi egitearekin bat taldez aldatu du Altunak, orain arte Buruntzazpin ibili ostean. Zarauzko Jira Bira taldean dabil orain. "Txirrindulariok asko zaintzen gaituzte, materiala ere bai, neguan zeharreko entrenamendu planifikazio zehatz bat diseinatu dute niretzat... Espero baino hobeto hasi naiz talde berrian, oso gustura nago", dio herritarrak. Taldeko kideen arteko "giro ona" ere azpimarratzen du: "Arrasaten asko animatu ninduten, harreman oso ona daukagu, eta horrek laguntzen du gero konpetitzailekoan".

Duela bost aste ekin zien entrenamenduei Altunak, hilabetez atsedean hartu ostean. "Deskonektatzeko oso ongi etorri zitzaidan tarte hori, baina era berean, fisikoki asko galtzen duzu", dio. Orain arteko saioak alor hori indartzeko baliatu ditu, errepideko sasoiara



Denboraldia hastearrekin batera podiumeko maila gorenera igo da Altuna.



Iñigo Altuna ziklo-kros proba osatzen.

ENDIKA OREGUI

## UDALA.

## Kirol merituen sarien hautagaitzak

Lasarte-Oriako Udalak kirol merituei sariak emateko hautagaitzak aurkezteko epea ireki du. Azaroaren 20a izango da azkeneko eguna. Proposamenak herriko elkarteek eta herritarrek beraiek egin ditzakete. Bakoitzak kirolari bakar baten izena eman ahal du. Horretarako, fitxa bat bete beharko dute. Lasarte-Oriako Udalaren web orrialdean zintzilikatuko da, eta elkartei helbide elektronikoz bidez bidaliko zaie.

Behin hori beteta, udalari bidali beharko zaizkio proposamenak, [kirolak@lasarte-oria.eus](mailto:kirolak@lasarte-oria.eus) helbidera. Bestela, Udala Kiroldagian jarriko den kaxan ere utzi daitezke.

## Hiru sari mota

Hiru kategoriatan emango ditu sariak udalak: emakumezko kirolariaren 2016ko



Sei kirolari saritu zituen iaz Lasarte-Oriako Udalak.

saria, gizonezko kirolariaren 2016ko saria eta kirol ibilbidearen 2016ko saria.

Hautagaiek 18 urte eduki beharko dituzte gutxienez. Euren meritua baloratzeko bi irizpide jarri ditu udalak: Lasarte-Oriako kirolaren alde egindako lana eta kirol ibilbide pertsonala.

## Iazko sarituak

Sei kirolari saritu zituen udalak iazko abenduan: Axier Arteaga pilotaria, Eneritz Busto atleta, Iñigo Ibarburu igerilaria, Maialen Chourraut piraguita, Xabier Elizegi distantzia luzeko igerilaria eta body fitness diziplinan aritzen den Eva Crespo.

## SASKIBALOA.

## Judith Navarro herritarra infantil Euskadiko txapelketa jokatu du Gipuzkoako selekzioarekin

Azaro hasieran Hondarribian jokaturako infantil mailako Euskadiko txapelketan aritu zen Judith Navarro, Gipuzkoarekin. Bizkaia eta Arabarekin neurtu zituzten indarrak: partida bat irabazi eta bestea galduta, azpitxapeldun izan zen Gipuzkoa. 55-49 galdu zuen Bizkaiaren aurka, eta 59-47 galdu Arabaren aurka.

Gipuzkoarekin aritu ostean, Euskadirekin entrenatzen hasia da herritarra, aurredeialdian sartu baita; atzo burutu zuen lehenengo saioa. Urtarrilean jokatu den Espainiako txapelketa prestatzen hasiko da taldea. Urtean zehar Donostiako Easo taldean jokatzen du Judith Navarrok.



Judith Navarro (behean, ezkerrean, 7 zbk.) Gipuzkoarekin aritu da.

# Agenda

Asteartea, 18:30ean, Ttakunenea



## Maitalearen galera

'X hil da' lana aztertuko dute Irakurle txokoko kideek Uxue Alberdi txoko kudeatzaile eta Alaine Agirrei idazlearekin batera. Bere bigarren eleberrian maitale bat galtzeko arrazoiak, hala nola, heriotza, ihesa, asperdura, trizioa... aztertzen ditu protagonistak zehatz mehatz. Denak izugarriak dira geratzen den maitalearentzat.

## Erakusketa

ANTONIO MERCERO ARETOA

Azaroaren 15era arte, astelehentik ostiralera, 18:00etatik 19:00etara

'Somos migrantes' argazki erakusketa ikusgai egongo da. Doako sarrera. Topaketa asteko ekintza.

## Beldurrezko gaua

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Larunbata 19, 22:00etan

Beldurrezko Gaua antolatuta da. 'Nunca apagues la luz', 'Ouija. El origen del mal' eta 'No respites' beldurrezko filmak ikusgai izango dira. Sarrera, 12,00 euro.

## Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Igandea 20, 17:00etan

'Zikoinak' animaziozko filmak eskainiko dute haurren saioan. Sarrera, 3,80 euro. Euskaraz.



Igandea 20, 19:30ean

'El hombre perfecto' filma eskainiko dute helduen saioan. Sarrera, 5,50 euro.

## Emakumeen kontrako indarkeria

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteartea 22, 19:00etan

Irantzu Valera Faktoria Lilako kideak hitzaldia eskainiko du.

## Lasarte-Oria

### Hitzaldia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena, 19:30ean

On Felix Garitano Ama Brigitarren kaperako apaizak 'Creo en Dios... Soy ateo. Aproximación a la realidad actual' hitzaldia eskainiko du.



urteurren egunean. Musika eta umorea izango dira ekitaldian.

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Larunbata 19, 20:00etan

'Bi zaldi' taldearen kontzertuaz gozatu ahalgo da.

Asteartetik azaroaren 21era

Ttakun Kultur elkarteak jaso-tzen duen erakusketa izango da ikusgai.

## Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 22:00etan

Txalo produkzioak 'El tipo de la tumba de al lado' antzezlan eskainiko du. Sarrera, 5,50 euro.

Larunbata 19, 17:00etan

'Tomaxen abenturak. Txipli txapla' antzezlan eskainiko da. 3 urte baino gehiagoko haurrei zuzendutako lana da. Sarrera, 3,80 euro.



## Ttakun 25. urteurrena

TAKUNENEA

Asteazkena, 19:30ean

Ttakun Kultur elkarteak Ttakuneneako inaugurazio ofiziala egingo du bere 25.

## Ipuin-Kontalaria

HAUR LIBURUTEGIA

Osteguna, 18:00etan

Pello Añorgak hainbat ipuin kontatu eta antzertuko dizkie 4 eta 5 urteko haurrei.

# Herritarren txokoa

### Aterpeko loteria

Aterpea Merkatarien elkarteak jakinarazten du Gabonetako loteria salgai duela. Interesa dutenek elkarteak establezimenduetan eskuratu dezakete.

### Aterpeko zenbaki saritua

Aterpea Merkatarien elkarteak antolatutako 'Bezeroaren Hamabostaldia' kanpaina zozketatzen ziren 300 euroak 08761 zenbakiko txartelak eskuratu ditu, hau baita urriaren 31eko ONCEko zozketako zenbaki saritua.

Onuraduna jar dadila harremanetan Aterpea Merkatarien elkarteak kideekin bazkide den edozein dendara hurbilduz.

### 1962. urtean jaiotako afaria

1962. urtean jaioteko herritarren afaria antolatzen ari dira. Afaria azaroaren 19an, larunbatean da, Abend garagardotegian.

Menuak 50 euro balio ditu. Diru sarrera honako zenbakian egin behar

da: E578 3035 0036 12 0361135678. Izena emateko azken eguna azaroaren 17a, osteguna da.

### 1955eko kintoen afaria

1955ean jaiotakoek kinto afaria ospatuko dute azaroaren 19an, 21:00tan, Goiegi jatetxean.

Izena eman edo informazio gehiago jasotzeko deitu zenbaki hauetara: 678 90 34 99 (Bego) eta 627 70 12 41 (Asun).

### 1963. urtean jaiotako afaria

Aurten ere 1963. urtean jaiotakoek kinto afaria egingo dute. Honako honetan, 'El Jardín' jatetxean, lehen 'Txitxardin Beltza' zen jatetxean antolatuta dute, azaroaren 19an, 21:00etan.

Aurretik, 20:00etan, Okendo plazan bilduko dira potetxo bat edo bi hartzeko asmoarekin.

40 euro izango da afaria, DJ eta guzti. Laboral Kutxako zenbaki honetan egin behar da diru sarrera, ES 36 3035 0036110361136871.

# Hemeroteka

## Duela 1241 ale

Ttakun Kultur elkarteak 25 urte beteko ditu azaroaren 16an. 1998ko azaroan, elkarte sortu zeneko 7. urteurrenarekin bat eginuz, 'Aukeran, zuk duzu aukera' bazkide kanpaina aurkeztu zuen.

Sebastian Kerejeta Ttakun KEko lehendakariak prentsaurrekoan azaltzen zuenez, "Lasarte-Orian euskaren erabilera handiagoa izan dadin, aukerak gehitzen ari gara. Horiek guztiak dira bazkide kanpaina honetan eskaini nahi ditugunak".

Elkartearren sorrerak euskara helburu izanda, jende askoren ahalginak bildu zituela azpimarratu zuten Jon Rekondo eta Amaia Tejerria elkarteak kideek, "garai haietan ideologiak eta bakoitzaren joerak alde batera utzi eta euskaren alde lan egiteak merezi zuelako jende askoren atxikimendua lortu zen".

Euskara gizarte arlo desberdinetan zabaltzeko ahalgin egin eta hauetan lan egiteko pertsonak ere hurbildu zirela adierazi zuten, "guretzat oso positiboa izan da jendea askoren ilusioak eta lan egiteko gogoak gai desberdinetan bideratu ahal izan ditugulako".

Oraindik Lasarte-Orian euskaren arloan egiteko asko zegoela eta, Ttakun Kultur elkarteak seriotasunean, giro onean eta umorean aritzeko lan modu bat eskaini nahi zuela nabarmentzen zuten, "euskarari aukera eman nahi diogulako eta euskarak aukerak ematen dizkigulako".



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

# Ttakun, 25 urte euskalduntzen

Asteazkenean Ttakunenean egingo da urtebetetze ospakizuna 19:30ean

**2016a urteurren urtea izan da Ttakunentzat. Hainbat ekintza egin ditu elkarteak orain arteko ibilbide oparoa ospatzeko eta asteazkenean egingo da berria. Ttakunenean ekitaldi irekia izango da asteazkenean 19:30etik aurrera. Larunbatean, Jalgin Bi Zaldi taldearen kontzertua izango da.**

## TXINTXARRI

1991ko azaroaren 16an, Ttakun Kultur Elkarteak jaio zen Lasarte-Orian, bertako euskaltzaleek zituzten ilusioak, nahiak eta asmoak aurrera eraman asmoz. Aurretik hainbat lagunek makina bat lan egin zuten euskararen inguruan eta Ttakun izan zen horren guztiaren fruitu.

Asteazkenean, 2016ko azaroaren 16an Ttakun Kultur Elkarteak 25 urte beteko ditu. Urte hauetan lan asko egin du elkarteak, Ttakun Lasarte-Oriako eta inguruko euskalgintzan erreferentzia puntu bilakatu delarik.

25 urte hauetan elkarteak asko handitu da eta garaiak aldatu diren arren, helburuak hasierako berdinak dira. Oinarrikoa euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa sustatzea da, nahiz eta erronka asko gaunditzea lortu den. Honetarako, urte hauetan guztietan zehar Udalarekin, herriko alderdiekin, elkarteekin, ikastetxeekin, euskaltegiekin eta baita norbanakoekin ere (gurasoak, euskaldun berriak...) elkarlanerako bideak eraiki dira.

Ttakunen ibilbidean egotzek berebiziko garrantzia izan dute. Andre Joakina Eneako ganbara Ttakunen hastapenaren erreferentzia izan zen. Bertan asteazkenero bildu ziren urtebetetz Lasarte-Oriako euskara taldearen ideia abiapuntutzat hartuta. Bigarren erreferentzia Pablo Mutiozabal kaleko 2. zenbakiko egoitza izan zen. Hantxe eman ziren

lehenengo pausoak 1992. urtean Udalak Erribera kaleko lokala utzi zuen arte. Liburutegi zaharrean 1998. urte arte egon ziren bulegoak eta Txintxarri aldizkariaren egoitza. Urte horretan egungo kokalekura pasa zen Geltoki kalean.

Bestalde, dagoeneko zabalik da Ttakunenea. "Bazkideen aspaldiko nahiari erantzuna emateko" eta topagune bat izan dezaten: Toki goxo eta ireki bat. Euskaltzaleentzako arnagune berria".

## Lehenengo proiektuak

Elkartearen lehenengo egitasmoak Udaleku irekiak eta Euskal txokoak izan ziren. Lanean hasi aurretik hausnarketa sakona egin zegoen Lasarte-Oriako euskararen beharren gainean eta aisia eta haurren mundua lantzea herria euskalduntzen hasteko lehen pausoa zela argi izan zuten sortzaileek. Lehenengo txoko horietan 153 haur eta 9 begirale aritu ziren, egun txokoetan 500 gora haur eta 50 begirale inguru dira.

Ekintza hauek ez ziren nahikoak herrian zegoen euskara-erabilpen guneen beharra eta aisialdi ekintzen hutsunea asetzeko. Honela, Kuku-Miku haurren eta gazteen saila sortu zen, 2003. urtean gaur egungo Ttakunen Aisialdi saila izatera pasa zena. Honen baitan jaio ziren 2003-2004 ikasturtean Amaraun Kluba eta 2008an Gaztekluba.

Haurren eta gazteen ekintzak antolatzen zituzten elkarte eta erakunde asko gaztelaniaz aritzen ziren, eta



1992. urtean egin zen Gizartetxean elkartearen lehenengo batzarra.

ikastetxeetako begirale batzuk ere ez zekiten euskaraz edo ez zuten erraztasunik. Behar hori ikusita, Kalea Maixu! Egitasmoa jaio zen 1993an. Herriko gainerako elkarteekin eta ikastetxeekin lanean hasi zen Ttakun eskola-orduz kanpoko jarduerak euskalduntzeko asmoz. Udaleku Ireki eta Euskal Txokoez gain pixkanaka programa berriak garatzen joan dira: Kuadrillategi, Irakutzezin aldizkaria, Faktoria, Eskola-Kirola edota LMLK.

Helduentzako bertso eskola izan zen sortu zen hurrengo saila eta 20 bat lagun hasi ziren bi taldeetan garai hartan. Gaur egun heldu eta haurren taldeak daudelarik martxan.

Dokumentazio zentroa ere osatu zen hasieran hizkuntzaren inguruko mota guztietako dokumentuak biltzea helburu zuelarik.

Ttakunek bere ibilbidean, herriko kultur ekitaldi ezberdinak antolatu eta presentzia areagotu du. Esaterako, Euskararen 3. Maratoia antolatzeko ardura hartu eta lau urtero mantendu du konpromisoa

1992tik. Horrela ere, San Pedrotako lehenengo zikiro afaria urte berean egin zen. Horretaz gain, festak euskaraz gozatu ahal izateko, sagardo dastaketa, bertso saioa, umeen eguna... antolatzen hasi zen. Egun udalarekin batera asko dira herriko festetan antolatzen diren ekintzak; jendetsuena, Sorgin dantza. Uztailean Santa Ana parodiaren txanda da, ohitura hau galtzear zegoela elkarteak hartu zuen 1996. urtean eta urtero asko dira horretan parte hartzen duten herritarrak.

San Tomas azoka eta Olenzeroren etorrera dira Ttakunek urte hauetan antolatzen jarraitu dituenak. Euskal Inauterien ardura ere duela urte batzuk hartu zuen kultur elkarteak aurreko talde antolatzaileak eskatuta.

## Txintxarri

Urtebeteko esfortzua eta bileren ondoren, 1993. urteko urriaren 1ean Txintxarri aldizkaria sortu zen. Hamaboskari bezala jaio zen 3.000 aleko tiradarekin. 2.000. urtean aste-kari bilakatu zen. Egun astean bitan ateratzen da Txintxarri eta herriko etxe guztietan banatzen da. Paperekoaz gain, aldizkari digitala martxan dago.

1998. urtean Jalgi zabaltea izan zen Ttakunen erronka handietako bat. Orduetik euskarazko kultur espresio ezberdinen agertoki izan da kafe antzokia.

Ez da ahaztu behar euskaldun berrientzako solaskide programa. Honek harrera bikaina izaten du urtero eta helburua euskaldun zaharrak eta berriak elkartzean datza mintza praktikatuko. Elkarteak hauentzat tailer edota irteerak antolatzen ditu euskaraz hitz egiteko esparruak zabaltzeko helburuarekin.

## Aitortzak

Ttakunena ibilbide luzea eta emankorra izan da. Honengatik hainbat aitortza ere jaso ditu. 2.000. urteko uztailean Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, Herri Onurako elkarte izendatu zuen Ttakun. Urte berean, abenduan, Foru Aldundiak euskalgintzako Anton Abbadia saria eman zion. 2015ean Bikaintasun saria jaso zuen elkarteak herrian eskainitako beste batzuen artean.

## Ospakizunak

Urtean zehar hainbat ekintza egin dira urteurrenaren aitazkiatan. Apirilean Gazte Klubak erakusketa antolatu zuen eta Argiarekin elkarlanearan erakusketa eta mahai-ingurua egin zen: 'Transizioak. Euskal Herriko historia hurbilari begirada selektiboa'.

Bertso eskolak, Ttakunen baitan, 25 urte betetzen dituzenez, hainbat ekintza egin zituen ere. Lutxo Egia, Bagera Elkarte eta Lasarte-Oriako 'Euskararen Maratoio' kideen arteko esperientzia trukaketa eta mikrofono irekia ere egin zen.

Ospakizunei amaiera emanaz, asteazkenean 19:30ean Ttakunenean ekitaldi egingo da, Iñigo de Loyola kalean, bazkide guztientzat.

Txalaparta doinuak, Bea Egizabalen hitzak eta luntxa eskainiko dira urtebetetzea behar bezala ospatzeko. Hau osatuz argazki erakusketa jarriko da Jalgin bihar hasita eta astebetetz.

Larunbatean, azaroak 19, 20:00etan, 'Bi zaldi' taldearen kontzertuaz gozatu ahal izango da Jalgi kafe Antzokian, sarrera doan. Ttakunek herritarrak ekintzetan parte hartze- ra animatzen ditu.



Euskararen 9. Maratoian Euskoskar saria jaso zuten herriko euskalgintzako eragileek, tartean Ttakunek.